

Zerbitzu katalogoa

Herritarren Partaidetzako Zerbitzua



Gure helburua

Gure helburua da herritarren partaidetza sustatzea politika publikoen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan, bai Aldundian baita Gipuzkoako erakunde publikoetan ere; horretarako tresna eta baliabide anitz garatzen eta denon eskura jartzen ditugu.

Azken xedea da udalekin, herritarrekin eta herri erakundeekin batera elkarlaneko gobernantzan sakontzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren nortasunaren ezaugarria izan dadin.

Kokapena:

Foru Jauregiko 2. solairua.
Gipuzkoa plaza z.g. 20004,
Donostia

Posta elektronikoa:

partaidetza@gipuzkoa.eus

Telefonoa: 943 11 21 11

Eskaintzen ditugun zerbitzuak

Partaidetza prozesuak

Gipuzkoako eragileek Aldundiaren eskumeneko diren gaietan parte hartzeko eskubidea bermatzeko zuzeneko tresnak eskaintzen ditugu. Tresna horien diseinua, garapena edota ebaluazioa lantzen dugu horien sustatzaile edo laguntzaile garen heinean. Parte hartze prozesuen ereduak:

- **Deliberaziozko partaidetza prozesuak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoan interesa edo eragina duten politika publikoak zehazteko prozesuak dira, eta jarduera jakin bat kudeatzeko elkarrizketa publikoan oinarritzen dira.
- **Herri galdeketak:** Foru Aldundiak hartu beharreko erabaki publiko edo politiko jakin baten inguruan herritarrek duten nahia ezagutzeko prozedurak. Honako modalitateetan antolatu daitezke: partaidetza bidezko kontsulta, demoskopioa, prozedurak, entzualdi publikoak, herritarren panelak.
- **Foru arauen aurreproiektuak prestatzeko partaidetza:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren arau-ekimenean interesa duten pertsona edo erakundeen proposamenak ezagutzeko prozedurak dira. Horien bidez, herritarrek aurkezturiko proposamenak arauen aurreproiektuetan txertatu daitezke.
- **Aurrekontu irekiak:** herritarren partaidetzarekin Aldundiaren aurrekontuetako alderdi batzuk lehenesten laguntzeko prozedura da. Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean, herritarrek beren kezkek, desirak, lehentasunak, gomendioak eta iradokizunak zuzenean adierazteko ekimena da.
- **Bestelako prozesuak:** ezaugarrietara eta eskaeretara moldatze aldera, partaidetza prozesua beste modalitate edo tresna berri batzuen bidez garatzeko aukera ematen dugu, eta beste aldagai batzuk sartu ahal izango dira.

Partaidetza guneak

Herritarren partaidetza bermatzeko eta sustatzeko beharrezkoak diren organo, egiturak eta topalekuak ezartzea eta bultzatzea.

- **Erakundeen arteko espazioa:** Gipuzkoako toki erakundeen eta Aldundiaren artean partaidetza arloan lankidetzara bultzatzen du. Organo honek herritarren partaidetzarako politikak indartzen ditu tokian-tokian, baliabideak partekatzen ditu, jardunbide egokiak eta arrakasta ereduak identifikatzen eta partekatzen ditu, eta sarea osatzen duten erakundeen artean horiek aplikatzea sustatzen du.
- **Elkarleen foroak:** herritar erakundeek partaidetzaren kulturaren garapenean gogoetak, ikaskuntzak eta tresnak parteka ditzaten eta beraien arteko lankidetzara ahalbidetzeko gunea da.

Partaidetzaren informazioa, komunikazioa eta dibulgazioa

Partaidetza bideak zabaltzeko tresna eta ekipamendu digitalak sortzea eta berrikuntzan sakontzea.

- **Partaidetza web-gunea:** gure web-gunearen bidez partaidetzaren inguruko informazioa, komunikazioa eta hedapena eskaintzen dugu: garatzen ditugun partaidetzako prozesuen garapenean informazioa, gure laguntzarekin garatu diren prozesuen sistematizazioa, Gipuzkoako udalei "Partaidetzako on-line" plataforma eskaintzen diegu, garatzen dituzten parte hartze prozesuen informazioa kudeatu dezaten (aurkezpena, jarraipena, ebaluazioa...), partaidetzaren inguruko berriak eta newsletterrak partekatzen ditugu...
- **Partaidetzako esperientzien sistematizazioa:** alde batetik, Gipuzkoan erakundeek (udal eta foru erakundeak) eta herritarren erakundeek garatutako partaidetza-esperientzien maparen web-gunea eskaintzen dugu, gaika eta lurraldeka sailkatuta. Bestetik, urtero Aldundiak burutu dituen eta diruz lagundu dituen partaidetzako prozesuen sistematizazio liburuxka argitaratzen dugu.
- **Komunikazioa:** sare sozialak herritarrekin komunikatzeko erabiltzen ditugu.

Partaidetzaren sustapena

Gipuzkoako lurraldean partaidetzaren kultura zabaltzeko eta sustatzeko baliabideak eta zerbitzuak eskaintzea.

- **Dirulaguntzak:** herritarren erakundeentzako eta udalentzako dirulaguntzak eskaintzen ditugu partaidetza prozesuak, partaidetzaren kultura edo partaidetzarako prestakuntzako jarduerak sustatu ditzaten.
- **Aholkularitzak:** zerbitzu honen eginkizuna da, alde batetik, parte hartze estrategia eta prozesuak ahalbidetzeko udalei zein herritar erakundeek laguntza tekniko eskaintzea, eta, bestetik, herritar orori, Aldundiaren eskumenekoak diren politika publikoetan parte hartzeko tresnei buruzko aholkularitza ematea (herri galdeketa, deliberaziozko partaidetza prozesuetan).
- **Prestakuntza:** alde batetik, Gipuzkoako udalentzako eta tokiko erakunde txikientzako prestakuntza eskaintzen dugu herritarren partaidetzaren erakunde garapena sustatu dezaten. Bestetik, Gipuzkoako herritarrei eta Gipuzkoan jarduten duten herritarren erakundeek prestakuntza eskaintzen diegu: partaidetzaren kulturaren garapena sustatzeko, partaidetzarako tresnen inguruko ezagutza izan dezaten eta lana beren kabuz egin ahal izateko ezagutza izan dezaten.
- **Topaketak:** hemengo, Espainiako eta nazioarteko publikoari zuzendutako topaketak antolatzen ditugu, non arrakastaz garatzen ari diren esperientziak ezagutu eta ikasketak partekatu nahi diren.
- **Partaidetzarako herritar erakundeen erregistroa:** erregistratuta dauden herritar erakunde guztiei informazioa helarazten diegu Aldundiak sustatzen dituen herritarren parte hartzeari buruzko ekimenei buruz.

Harremanetarako

Foru Aldundiaren Herritarren Partaidetza
webgunea: <http://www.gipuzkoa.eus/partaidetza>

Egoitza Elektronikoa:
www.gfaegoitza.eus